

## Mekauen sos

**A**urten ere, udaberriarekin, iristen hasi dira argitaletxeetako likidazioak euskal idazleen postontzietara, eta kontuan baldin badugu egileak liburu salduaren %10 jasotzen duela, hau da, kafe bat gutxi-asko liburu bakoitzeko, eta kontuan baldin badugu salmenten beheranzko joera, hortik segi dezakegu euskal idazleak ez duela irrika handiz espero postariaren etorrera, sarritan horri halako depresioak segitzen baitio. Esanguratsua da, baina Banco Atlántico edo Caja Madridekoak izan daitezke euskal idazleak euskal argitaletxeetatik jasotzen dituen txekeak; esanguratsua da, baina egile eskubideak kobratu ahal izateko gutxienez 30 eurokoak izan behar dute, bestela kopuru barregarri hori hurrengo urtekoari gehitzen zaio; eta esanguratsua da, finean, batzuetan euskal idazlea pozarren joaten dela txekea kobratzera, baina hara non esan dioten: “Barkatu, baina hau ez da txeke bat pagakizun agiri edo *pagaré* bat baizik, eta bertan ageri den data arte ez dago kobratzerik”: eta pagakizun agirian uztaila edo abuztua ageri.

Aurten ere, udaberriarekin, hara eta hona dabilta euskal idazleak (txantxetan edo makurkeriaz deitzen diete “profesional”?). Urte asko dira Euskal Herrietako errepideetan barrena dabiltzala, Jaurilaritzatik edo Nafarroako Gobernutik bultzatutako Idazleak ikastetxeetan kanpainaren barnean, eta pozgarria da ikasleek literatura kontu hurbiltzat sentitzea, eta pozgarria da euskal idazleak saioko 200 euro inguru kobratzea (dietak eta kilometrajek



ZALDI ERO



Jordi Serra i Fabra idazlea behin  
ferrari batean heldu zen, eta  
zakar eta burrunbatsu balaztatuz  
aparkatu zuen, eta harrezkero barre  
egiten diote Citroën AX batean  
doan euskal idazleari



barre, barkatu, barne esan nahi nuen). Esanguratsua da, baina euskal idazlea nekatua dago hain koherente izateaz, beti hain euskal, beti hain idazle, eta gaur egun erraz asko ikusiko duzu Federico Jimenez COPEn entzuten edo Gemma Nierga, itzuleran, SER katean; esanguratsua da, baina euskal prentsarik ere apenas irakurtzen duen, aspertu egiten da *Berriako* iritziekin, eta jakinminenez irakurtzen du *Matraka* gehigarriko sexuari buruzko atala: tramankulu bereziak saltzen dituzte, gerol! Orduan pentsatzen du sentsualitate gehiago behar duela gure literaturak, eta batez ere bere liburuek. Eta euskal idazlea iritsi da ikastetxera, eta ikasleak zain topatu ditu; argitaletxeek antolatzen dituzten halakoxe kanpainetan, Jordi Serra i Fabra idazlea behin ferrari batean heldu zen, eta zakar eta burrunbatsu balaztatuz aparkatu zuen, eta harrezkero barre egiten diote Citroën AX batean doanari eta irriz karkailaka hasten dira euskal idazle despistaturen bat trenez edo autobusez heldu baldin bada.

Aurten ere, udaberriarekin, liburuaren eguna ospatu da, baina euskal idazleak poztasun eskasarekin hartu du urteko ardo batekin eta otarteko ziztrin batekin are taberna ziztrinago eta ketsu batean. Baina lagun batek

oparitutako Herbert Morot-en *El guía del Hermitage* antzerki lan bikaina irakurtzen hasi da, eta eserialdi batean amaitu du, eta geratzen zitzaizkion bi euroak eskailepeko ardo batean xahutu ditu. Liburuak Kutxa saria jaso zuen eta Kutxak berak argitaratu zuen, eta 3'60 euro baino ez du balio, baina hain iruditu zaio ederra, aspaldian hain zirrara gutxi sentitu du, oso noizean behin oraindik ere gertatzen den liburuaren magiaren alde egin baitu topa. “11n Federico Luppi etorriko duk Victoria Eugeniara antzezpen horrexekin. Neuk gonbidatuko haut”, esan dio abokatu bufete bateko lagunak. Eta euskal idazlea pozago irten da tabernatik, baina autoko giltza bila eskua sakelara eraman duenean, *mekauensoska* konturatu da txintxin hotsik ez duela entzun, eta bileterik ere ez daukala. Eta etxera bidean aurten lehenengoz kukua entzuten baldin badu... Hura entzungo ez badu, leihatilak ongi itxi beharko ditu. ■

irudia:

Antton Olariaga

